## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
## *Memoria Departamento Programa - GASTOS*

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
| --- | --- | --- |
| **03. Gizarte Ekintza**<br>**03.** ***Acción Social*** | ***04.*** *Mendekotasunerako Prestazioak eta Diru-laguntzak*<br>***04.*** *Prestaciones y Subvenciones de la Dependencia* | **310.309** *Mendekotasunerako Prestazioak eta Diru-laguntzak*<br>**310.309** *Prestaciones y Subvenciones de la Dependencia* |

Mendekotasunerako Prestazioen eta Diru-laguntzen programaren xedea mendekotasunean dauden pertsonen eta pertsona ezinduen bizimodua hobetzea da; horretarako berariazko prestazioak, zerbitzuak eta programak antolatu eta kudeatuko dira pertsona ezinduei arreta emateko, beraien autonomia pertsonala sustatzeko eta gizarteratzen laguntzeko.

1. Lehenengo helburua ezintasunaren erruz bizitzeko baliabideak lortzeko modurik ez daukaten pertsona ezinduen bizimodua hobetzea da; hori lortzeko ondoko hauek egiten dira:

   – Kotizazio gabeko elbarritasun-pentsioak kudeatzen, ordaintzen eta berrikusten dira. Pentsio hau aldizkakoa da, eta gradu jakin bateko minusbalioa edukitzeaz gainera errenta edo diru-sarrera nahikorik ez duten 18 eta 65 urte arteko pertsonei ematen zaie.

   – Kotizazio gabeko erretiro-pentsioak kudeatzen, ordaintzen eta berrikusten dira. Pentsio hau aldizkako prestazio ekonomikoa da, eta 65 urte beteta eduki arren erretiro pentsioa lortzeko gabealdira heltzen ez diren pertsonei ematen zaie.

   Beste alde batetik, MIGILEko laguntzak ordaintzen eta berrikusten dira; hauexek dira:

   – Gutxieneko sarrerak bermatzeko sorospena; honen bidez baliabide ekonomikoak eman nahi zaizkie aldizka oinarrizko beharrizanak betetzeko bitarteko nahikorik eta egokirik ez duten pertsona ezinduei minusbaliotasun-graduaren arabera.

El Programa de Prestaciones y Subvenciones de la Dependencia se orienta a mejorar las condiciones de vida de las personas dependientes y discapacitadas mediante el desarrollo y gestión de prestaciones, servicios y programas dirigidos a este fin que posibiliten su atención, la promoción de su autonomía personal y la integración en la sociedad.

1. Para la consecución de un primer objetivo que consiste en mejorar las condiciones de vida atendiendo a las personas con discapacidad que carezcan de medios para subsistir y no estén en condiciones de obtenerlas por razón de su discapacidad, se desarrollan las siguientes acciones:

   – En primer lugar la gestión, abono y revisión de las pensiones no contributivas de invalidez, que es una prestación económica periódica que se reconoce a las personas de entre 18 y 65 años que padecen un determinado grado de minusvalía y carecen de rentas o ingresos suficientes.

   – En segundo lugar la gestión, abono y revisión de las pensiones no contributivas de jubilación, que es una prestación económica periódica para personas que, habiendo cumplido 65 años, no reúnen periodo de carencia para conseguir una pensión no contributiva de jubilación.

   Por otro lado, el abono y revisión de las diferentes ayudas de la LISMI que son:

   – El Subsidio de garantía de ingresos mínimos pretende dotar de recursos económicos, de carácter periódico, a las personas con discapacidad que carezcan de medios suficientes y adecuados para atender las necesidades básicas, por razón del grado de minusvalía.

– Hirugarrenei laguntzeko sorospena; galera anatomikoak edo funtzionalak izan dituztelako bizitzako oinarri-oinarrizko gauzak egiteko beste pertsona baten laguntza behar duten pertsona ezinduentzat da. Prestazio ekonomiko hau ere aldizkakoa da.

– Mugikortasunerako eta garraio gastuetarako sorospena: aldizkako prestazio ekonomikoa da. Pertsona ezgaitua ohiko bizilekutik joan-etorriak egin behar dituenean ematen da, baldin eta pertsona honek garraiobide kolektiboak erabili ezin baditu.

– Osasun laguntzako txartela ematen da Gizarte Segurantzaren osasun arloko estaldurak osatzeko. Ezgaitasunen bat izan arren osasun laguntzaren gertakizunak babes publikoko araubidearen bidez estalita ez dituzten eta horrelakorik jasotzeko eskubiderik ez duten pertsonei ematen zaie.

2. Bigarren helburua mendekotasunean dauden edo ezintasunen bat duten pertsonen autonomia pertsonala eta haientzako arreta zerbitzuak sustatzea da; hori lortzeko ondokoak egingo dira:

– Laguntza behar duten pertsonak euren etxean zaintzeko prestazio ekonomikoak kudeatu, izapidetu eta ordainduko dira; prestazio horien xedea profesionalak ez diren zaintzaileen arreta-lanak berekin dakartzan gastuak estaltzea da. Izan ere, egoitza-baliabideak ezin daitezke izan gizarteak mendekotasun handia duten pertsonei ematen dien erantzun bakarra.

– El subsidio de ayudas a terceras personas se dirige a personas con discapacidad que, como consecuencia de perdidas anatómicas o funcionales, necesitan de asistencia de otra persona para realizar las actividades básicas de la vida. Se configura como una prestación económica de carácter periódico.

– El subsidio de movilidad y gastos de transporte se configura como una prestación económica de carácter periódico que se concede con motivo de las necesidades de desplazamientos fuera del domicilio habitual de personas con discapacidad que les imposibilite utilizar medios de transporte colectivo.

– La expedición de las cartillas de asistencia sanitaria viene a completar las coberturas del ámbito sanitario de la Seguridad Social, para aquellas personas que padeciendo una discapacidad no tengan cubiertas las contingencias propias de la asistencia sanitaria por régimen de protección pública, ni tengan derecho a ella.

2. Para la consecución de un segundo objetivo como es la promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia y/o discapacidad se desarrollan las siguientes acciones:

– La tramitación, gestión y abono de las Prestaciones económicas de cuidados en el entorno familiar destinadas a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por el cuidador no profesional; dado que los dispositivos residenciales no pueden ser la única respuesta que una sociedad aporte a las personas que presentan un nivel de dependencia importante.

– Laguntza pertsonalerako prestazioak izapidetu, kudeatu eta ordainduko dira. Prestazio horren helburua hauxe da: mendekotasun handia duten baloratutako pertsonak, pertsona gisa dituzten nahiekin bat egiten duen jarduera bat eta egoera sozial hobea ahalbidetuko duen lan eta/edo jarduera akademikoa garatu ahal izatea eta ondorioz, gizarteratze maila altuagoa eta garapen pertsonal aukera gehiago izatea.

– Zerbitzuarekin loturiko prestazio ekonomikoa antolatuko da; honen helburua hauxe da: mendekotasunean dagoen adineko bat Foru Aldundiaren zerbitzu publikoan sartzerik egon ez eta egoitza zentro pribatu baten jasotzen duen arretak eragiten dituen gastuak estaltzen laguntzea.

– Mendekotasunean dauden pertsonen eta ezintasunen bat dutenen autonomia pertsonala hobetzeko laguntza ekonomikoak edo diru-laguntzak ezarri eta araupetuko da: GIZATEK programa.

– Sei urtetik beherako pertsonen arreta goiztiarrerako laguntzak edo diru-laguntzak ezarri eta araupetuko dira; horien helburua umeok mendekotasunean eta ezintasunean ez erortzea izango da.

– Mendekotasunean dauden adineko pertsonei eta haien zaintzaileei (senitartekoak zein bestelakoak) laguntzeko programak aplikatuko dira Zainduz programari atxikitzea erabakitzen duten Bizkaiko Lurralde

– La tramitación, gestión y abono de la Prestación de asistencia personal cuyo objetivo es que personas valoradas como grandes dependientes puedan desarrollar una actividad acorde con sus aspiraciones como persona y pueden desarrollar una actividad laboral y/o académica que les permitirá una situación social mejor y por ende un nivel mayor de integración y de posibilidades de desarrollo personal.

– Igualmente se articula la Prestación económica vinculada al servicio, destinada a contribuir a la cobertura de gastos derivados de la atención prestada en un centro residencia privado y que se presta cuando no sea posible el acceso al servicio publico foral de residencias para personas dependientes o con discapacidad.

– La regulación e implantación de un sistema de ayudas económicas o subvenciones destinadas a proporcionar a las personas con dependencia o discapacidad las ayudas técnicas necesarias para favorecer su autonomía personal a través del programa GIZATEK.

– La regulación e implantación de un sistema de ayudas o subvenciones para la atención temprana de menores de 6 años, procurando la prevención de las situaciones de dependencia y discapacidad.

– La promoción de programas dirigidos a personas mayores dependientes y sus familiares o personas cuidadoras mediante la suscripción de convenios de colaboración con las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia que

Historikoko toki erakundeekin sinatuko diren lankidetza hitzarmenen bidez (pertsona nagusien zaintzaileentzako prebentzio, boluntariotza eta laguntza psikosozialeko ekintzen bidez familietan menpekotasunari aurre egiteko programa).

– Gainera, egunero mendekotasunean dagoen pertsonaren bat zaintzen duten pertsonek atseden hartzeko programak bultzatuko dira.

– Autonomia pertsonal sustatzeko helburuaren barruan, Alzheimer gaixoak eta haiek zaintzen dituzten senitartekoak oporretan joateko diru-laguntzak emateko programa bat abiarazi eta garatuko da, horien giza harremanak eta atsedena bultzatzeko.

– Horrez gainera, helburu hori lortzeko asmoarekin, mendekotasunean dauden pertsonek eta ezintasunen bat dutenek etxe barruan euren kabuz moldatzeko behar diren trebeziak ikasteko ekintzak sustatuko dira.

3. Hirugarren helburua mendekotasunean dauden pertsonak eta ezintasunen bat dutenak gizarteratzea bultzatzea da; horretarako ondoko hauek egingo dira:

– Programa berezi baten bidez diru-laguntzak emango dira adineko pertsonek euren ohiko giroan bizitzen jarraitu ahal izateko.

– Pertsona ezinduentzako diru-laguntzak ezarri eta araupetuko dira honelako programak gauzatzeko:

decidan integrarse en el Programa Foral de atención a la dependencia en el medio familiar mediante actuaciones de prevención, voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas mayores. Este programa se denomina Zainduz.

– Igualmente se promocionan programas dirigidos hacia el respiro de las personas cuidadoras que atienden diariamente a personas dependientes.

– Dentro de este objetivo de promoción de la autonomía personal se impulsa la relación social y el descanso mediante la puesta en marcha y desarrollo de un programa de subvenciones destinadas a proporcionar estancias de vacaciones para enfermos de Alzheimer y sus familiares cuidadores.

– En desarrollo de este objetivo también se impulsan acciones tendentes a la adquisición de habilidades en entornos domiciliarios que permitan a las personas dependientes y/o con discapacidad ir adquiriendo mayor autonomía personal.

3. Para la consecución del tercer objetivo que consiste en favorecer la integración en la sociedad de las personas dependientes y/o con discapacidad se desarrollan las siguientes acciones:

– Un programa de subvenciones destinadas a procurar la permanencia de las personas mayores en su entorno habitual mediante la realización de actividades de las personas mayores.

– La regulación e implantación de un sistema de subvenciones al colectivo de personas con discapacidad destinados a programas tales como:

- Elkarte-jarduna, informazioa eta autolaguntza.
- Aisialdia eta denbora librea.
- Sentsibilizazioa eta dibulgazioa.
- Esku hartzeko eta laguntza espezializatua emateko programa.
- Kultura sustatzeko programa.
- Garraio egokituaren programa.

– Diru-laguntza izendunak emango zaizkie irabazteko asmorik gabeko erakundeei ezintasunen bat duten pertsonei eta mendekotasunean daudenei gizarteratzen laguntzeko euren etxeetan eguneko jarduerak eta lan-jarduerak eginez eta programa esperimentalak aplikatuz.

– Programa baten bidez diru-laguntzak emango zaizkie irabazteko asmorik gabeko erakundeei kudeatzen dituzten ezinduen arretarako zentroei, inbertsioak egin ditzaten.

- Programa actividad asociativa, información y auto apoyo.
- Programa de ocio y tiempo libre.
- Programa de sensibilización y divulgación.
- Programa de intervención y apoyo especializado.
- Programa de promoción cultural.
- Programa transporte adaptado.

– Subvenciones nominativas que posibilitan a las personas con discapacidad o dependencia a través de Entidades sin ánimo de lucro la integración en la Sociedad mediante la permanencia en sus domicilios desarrollando actividades de día y ocupacionales y mediante el desarrollo de programas experimentales que ayuden a la consecución de su futura integración.

– Un programa de subvenciones para inversiones destinadas a centros de atención a personas con discapacidad gestionados por Entidades sin ánimo de lucro.